



# HONDAKINDEGIEN GIDALIBURU PRAKTIKOA

Arrangoitze, Itsasu,  
Lehuntze, Zuraide, Ahurti,  
Uztaritze eta Milafranga.



## ERROBI ATURRI SEKTOREA



## AHAL DELARIK, GURE HONDAKINDEGIETAN BIRZIKLATEGI PROIEKTUAK eta BERRERABILERA GUNEAK GARATZEN DITUGU.



### EUSKAL ELKARGOKO BIZTANLEAK NAHI DUTEN 25 HONDAKINDEGIETAKO BATERA JOAN DAITEZKE!

Hondakindegia etxe-hondakinen kudeaketarako zerbitzu publikoan sartzen dira osoki. Ongi balorizatua izateko, hondakina behar den bezala bereizi eta bildu behar da.

#### Hondakindegia eskertzen:

- **ekaien birziklatzea eta balorizazioa susta daiteke**, mementoko baldintza tekniko eta ekonomiko hoberenetan, baliabide naturalak zainduz
- **usaia**ko bilketa zerbitzuek **haien gain hartzen ez dituzten hondakinak bota daitezke**, garbitasun eta segurtasun baldintza onetan
- legez kanpoko botatzeek eta etxe-hondakin bereziek (hondakin lanjerosak) sortzen duten **kutsadura murriztu daiteke**



## ONARTUAK DIREN PROFESIONALAK

Euskal Hirigune Elkargoko lurraldean bizi edo lanean ari diren profesional guziak **hondakinak botatzera etor daitezke hondakindegietako araudia errespetatuz.**

Profesional gisa kontsideratuak dira eskulangileak, merkatariak, enpresak, tokiko elkargoak, administrazioak, zerbitzu publikoak, alokatzaileak.

Elkarteak, Enplegu zerbitzu txeke unibertsalak (CESU) ere profesional gisa kontsideratuak dira eta dagokien lurralde eremuaren aldean erregistratuak izan behar dira.

*Xehetasunak ikusi gidaliburuaren 9. orrialdean*

## ZURE ESKUALDEKO HONDAKINDEGIAK:

● ERROBI ● ERROBI-ATURRI

### ARRANGOITZE

#### ARRANGOITZEKO HONDAKINDEGIA

Othe-Xuria - D755 bidea  
64200 Arrangoitze

Astelehen & larunbata:  
09:00/12:00 – 14:00/18:00  
Asteazken, ostegun &  
ostirala:14:00

05 59 43 16 55

### ITSASU

#### ITSASUKO HONDAKINDEGIA

ZA Errobi  
64250 Itsasu

Astelehen, astearte, ostegun  
& ostirala:14:00/18:00  
Asteazken & larunbata:  
09:00/12:00 - 14:00/18:00

05 59 29 77 02

### LEHUNTZE

#### LEHUNTZEKO HONDAKINDEGIA

Harrobia – RD 261  
64990 Lehuntze

Astearte, ostegun & larunbata:  
09:00/12:00 - 14:00/18:00  
ostirala: 09:00/12:00  
Hetsia astelehen eta asteazkenetan

05 59 42 02 07

### UZTARITZE

#### UZTARITZEKO HONDAKINDEGIA

Milafrangako bidea « Geltokia »  
64480 Ustaritze

Astelehen & ostirala:09:00/12:00  
Asteartea:14:00/18:00  
ostegun & larunbata:  
09:00/12:00 – 14:00/18:00

Hetsia asteazkena  
05 59 70 34 19

### AHURTI

#### AHURTIKO HONDAKINDEGIA

Geltokiko bidea  
64240 Ahurti

Astelehen & osteguna:  
16:30/18:00  
Larunbata:14:00/16:00  
05 59 57 00 00  
Hetsia, astearte, asteazken &  
ostirala

05 59 44 15 99

### ZURAIDE

#### ZURAIDEKO HONDAKINDEGIA

RD 918  
64250 Zuraide

Asteartea:09:00/12:00  
Asteazken, ostiraletan:  
14:00/18:00  
Larunbata 09:00/12:00 –  
14:00/18:00  
Hetsia astelehen & osteguna

05 59 93 90 47

### MILAFRANGA

#### MILAFRANGAKO HONDAKINDEGIA

RD 137  
64990 Milafranga

Astelehen, asteazken &  
larunbata:09:00/12:00 –  
14:00/18:00  
Hetsia astearte & osteguna

05 59 44 06 42

#### EDOZEIN ARGIBIDERAKO:

**ERROBI:** 05 59 93 50 77

**ERROBI-ATURRI:**

05 59 44 15 99

# PREBENTZIOA

## HONDAKINDEGIRA JOAN AITZIN...

### ZURE PUSKEI BIGARREN BIZI BAT EMATEA BURURATU ZAIZU ?



#### KONPONKETA

Zure etxetik hurbilena den konpontzailea aurkituko duzu konpontzaileen aurkitegian:[DECHETS-NOUVELLE-AQUITAINE.FR](http://DECHETS-NOUVELLE-AQUITAINE.FR)



#### emaitza

Partikularren artean, tokiko elkartei edo Internet bidezko emaitza:[DONNONNS.ORG](http://DONNONNS.ORG)



#### TRUKADA/SALMENTA

Trukada (iragarki laburrak) / bigarren eskuko pusken merkatua saltegietan edo Interneten



#### BERRERABILERA

Gure lurraldeko ehun-dukiontzien sarea:[REFASHION.FR](http://REFASHION.FR)  
Elkarteak eta enpresak:  
[RESEAU-RENAITRE.COM](http://RESEAU-RENAITRE.COM)  
[AIMALETROCoeUR.ORG](http://AIMALETROCoeUR.ORG)



#### Landare-HONDAKINEN KONPOSTATZEA / XEHATZEA

Landare-hondakinen xehatzea bertan berrerabilia izateko:adibidez lur-estaltzea  
- soropila moztutako belarraz estaltzea  
- moztutako belarraren parte bat konpostagailurako  
- meta bidezko konpostatzea

**GOGOAN IZAN XEHAGAILU BAT ALOKATZECO EDO EROSTECO BIL TA GARBIK ESKAINTZEN DUEN DIRU LAGUNTZA (50€) + ZENBAIT AHOLKU-GIDALIBURU:[BILTAGARBI.COM](http://BILTAGARBI.COM)**

## HONDAKINDEGIAN

Elkarteak badira Lurraldeko hondakindegian, ehunak eta zapatak berreskuratzeke (salbu Itsasun). Milafrangako hondakindegian **Emmaus**-en presentzia azpimarra dezagun, baxerak, apaingarriak, jostailuak, egoera oneko altzari ttipiak berreskuratzeke.

# ZURE HONDAKINDEGIETAN IBILTZEKO ARAUAK



## IBILGAILU ONARTUAK:

- Ibilgailu arinak (beribilak, alokatutako edo prestatutako utilitarioak), erremorkarekin edo gabe.
- Bi edo hiru gurpileko ibilgailu motor-dunak eta bizikletak, erremorkarekin edo gabe.
- 2,25 metro edo zabalera guttiagoko eta erremorkarik gabe 3,5 tona edo guttiago pisatzen duen edozein ibilgailu.
- Gunea ustiatzeko beharrezkoak diren ibilgailu guzikiak.

## ZURE AHOLKATZEKO HARRERA KIDEA

- Langile bati aholkuak eskatzen dizkiot: nire laguntzeko hor da, ongi bereiz dezadan.
- Hondakindegiko harrera kideak edozein argibide eska dezake susmagarriak iruditzen zaizkion produktuen motari edo jatorriari buruz.
- Haren aginduak errespetatzea eta harekin adeitsu izatea eskertuko genizuke!

**IRAULKIETAN PUSKAK  
ESKURATZEA DEBEKATUA DA**

## ETORRI AITZIN:

- Nire hondakinak bereizten ditut motaren arabera nire ibilgailua husteko erraz izan dadin eta zirkulazioa arintzeko
- Ekarpen bolumena errespetatzen dut, hots **2m<sup>3</sup> asteka**.
- Hondakin lanjerosak ontzi hetsi eta hermetikoetan biltzen ditut, produktu mota idatziz.
- Ibilgailua husteko behar diren tresnak ekartzen ditut (sardea adibidez)
- Kartoiak zapaltzen ditut nire ibilgailuan, iraulkietan leku gehiago uzteko.
- Antolatzen naiz nire ibilgailua husteko behar diren baliabideak aitzinetik apailatzeko.

## HONDAKINDEGIAN:

- Nire haurrak edo animaliak ez ditut gunean ibiltzen uzten
- Iraulkiari perpendikularki aparkatzen dut nire ibilgailua eta hustu baino lehen motorra itzaltzen dut
- Langilearen aholkuak kontuan hartzen ditut

## HUSTU ETA GERO:

- Gunea garbia uzten dut
- Iraulkietara ez naiz jaisten
- Ibilgailua hustu bezain laster joaten naiz
- Zirkulazio seinaleak errespetatzen ditut

# HONDAKIN **onARTUAK**:



SALBU ITZASU

EHUNAK



LANDARE-HONDAKINAK



ZUREZKOAK



TRABAGARRIAK



ALTZARIAK



METALAK



OBRA-HONDAKINAK



KARTOIAK



ANPOILAK ETA NEONAK



HONDAKIN KIMIKO  
KALTEGARRIAK



TRESNA ELEKTRIKOEN  
ETA ELEKTRONIKOEN  
HONDAKINAK



ERRADIOGRAFIAK



PILAK ETA BATERIAK



TINTA-KARTUTXOAK



INFEKZIO-ARRISKUAK  
ARTATZEKO  
JARDUEREN HONDAKINAK



MOTOR-OLIOAK



SUKALDEKO OLIOAK



PNEUMATIKOAK

SOILIK ARRANGOITZE  
ETA  
LEHUNTZE  
(ENZILAJEAZ KANPO)



MOTZONDOAK

SOILIK  
LEHUNTZE



BERRERABILERA

SOILIK  
MILAFRANGA

# HONDAKIN **DEBEKATUAK:**

## ● HONDAKIN ERRADIOAKTIBOAK

Andrarekin harremanetan jarri ([www.andra.fr](http://www.andra.fr) / TÉL:01 46 11 80 00)

## ● AMIANTOA DUTEN HONDAKINAK

Hondakin horiek biltzen dituzten zerrenda aurkituko duzu [communaute-paysbasque.fr](http://communaute-paysbasque.fr) webgunean den amiantoari buruzko gidaliburuan.

## ● EPEZ KANPOKO LARRIALDI ARGIAK

Saltegitan itzuli eta ikus [communaute-paysbasque.fr](http://communaute-paysbasque.fr) webgunea

## ● KARTUTXOAK, ARMAK, TIROGAIAK, LEHERGAILUAK

Arma-saltegira itzultzekoak. Lehergailuei dagokienez:**BIZI ZAREN LEKUKO HIRITZAITZA EDO JENBARMERIAREKIN HARREMANETAN SARTU (tokiz ez aldatu)**

## ● EPEZ KANPOKO EDO BALIATU GABEKO SENDAGAILUAK

**Farmaziara** itzuli

## ● PRESIOKO EKIPAMENDUAK: SU-ITZALGAILUAK, GAS-BOTILAK

Su-itzalgailua edo botilaren marka banatzailearekin harremanetan jarri eta banatzaileen zerrenda aurkitu [communaute-paysbasque.fr](http://communaute-paysbasque.fr) webgunean.

## ● KAMIOI ASTUNEN PNEUMATIKOAK, AIRE-GANBERAK ETA BELDAR KATEAK, BIZIKLETEN PNEUMATIKOAK

Saltegi berezietara itzuli

## ● KARROZERIAK EDO KARROZERIA PUSKAK

**AUTO BEREIZTEGIEKIN** harremanetan jarri

## ● ONTZIETAN BILDUAK EZ DIREN INFEKZIO-ARRISKUAK ARTATZEKO JARDUEREN HONDAKINAK

Farmazia batean **ONTZI BAT** eskatu eta **DASTRI** ([www.dastri.fr](http://www.dastri.fr)) **SAREKO FARMAZIA BATERA EDO HONDAKINDEGIRA** eraman

## ● HONDAKIN LANJEROSAK

Jatorrizko ontzi hetsian **BOTA BEHAR DIRA**. Ez bada behar den bezala aurkeztua = **debekatua**

## ATERABIDEAK ETA ALTERNATIBAK DAUDE:

### ● PROFESIONALENDAKO:


Hornitzaile pribatuen zerrenda aurkitzeko sektore geografikoa. [communaute-paysbasque.fr](http://communaute-paysbasque.fr)

### ● PARTIKULARRENDAKO:

Hondakindegietan baztertuak diren hondakinendako aterabideak aurkitzeko, Euskal Hirigune Elkargoaren webgunean [communaute-paysbasque.fr](http://communaute-paysbasque.fr)

# HONDAKINDEGIETAKO HONDAKINAK EKOIZPEN OROKORRAREN % 40RI DA GOZKIO BIZTANLE BAKOITZ


IPAR EUSKAL HERRIKO 25 HONDAKINDEGIETAN EGINDAKO EKARPE-  
nen DATUAK ZENBAKITAN:



## EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAN, HONDAKINEN EKOIZPEN OSOA URTE BATEN EPEAN

ERREFERENTZIAZKO URTEA 2022:

- DD (Hondakindegietako hondakinak)
- BS (Bilketa selektiboa)
- OM (etxe-ondakinak)





# BALORIZAZIOA ETA BIRZIKLATZEA

## HONDAKINDEGIETAN: HONDAKINEN % 73a

### BALORIZATUA DA



LEHEN  
HONDAKIN MOTA  
HONDAKINDEGIETAN



**Landare-hondakinak** dira gure hondakindegietako hondakin zati handiena: **25 000 tona** baino gehiago **urteka!** Osoki balorizatuak dira **konpost gisa**. Haatik, balorizazio honek kostu bat du elkargoarentzat, etxean bertan baloriza daitekeen baliabide bat delarik, eta kanpoko gune batera garraiatuak eta kudeatuak izateari lotutako energia gastuak murrizteko bide bat dagoelarik.

Xehatzea, konpostatzea, lur-estaltzea hondakin gabeko baratze bat ukaiteko aterabideak dira, abantaila ekologiko handi batzuekin!




#### BALORIZAZIO ADIBIDE BATZUK

ZUREZKOAK



EZPAL ZUREZKO TAULAK



LANDARE-HONDAKINAK



KONPOSTA



BURDINA



ERRAILAK



OBRA-HONDAKINAK



PIKORRAK



ALTZARIAK




ALTZARI BERRIAK



#### HONDAKINAK TRATATZEKO MOLDEAK HONDAKINDEGIETAN

- ORGANIKOAREN BALORIZAZIOA
- EKAIEN BALORIZAZIOA
- LURPERATZEA



# PROFESIONALAK

## PROFESIONALEI DAGOZKIEN MODALITATEAK HONDAKINDEGIETARA ETORTZEKO

Profesionalak onartzen dituzten **Ipar Euskal Herriko hondakindegietara** joan daitezke (*ikus mapa 1. or. eta ordutegia 2. or.*), hondakin mota eta bolumenaren araberako prezioari buruzko argibideak azaltzen dituen hondakindegri-bonuen truk. Profesionala bereizketa bikaina segurtatzera engaiatzen da, baita hondakin mota bakoitza behar den lekura botatzera ere. **Egunero baimendua den ekarpen bolumen handiena 2m<sup>3</sup>-koa da hondakin onartuei dagokienez.**

### ETORTZEKO MODALITATEAK:

- Dagokion lurralde eremuaren aldean aitzinetik erregistratu (argibideak harrera kideari eskatu);
- Hondakindegiko harrera kideari zure burua aurkeztu aldi oro eta zein enpresaren izenean etortzen zaren adierazi;
- Ez erabili ibilgailu partikularra erabilera profesional baterako, bestela hondakindegira-ko sartzea debekatua izanen zaizu;
- Ez erabili laneko ibilgailua erabilera pertsonalerako;
- Hondakinik ez bota hondakindegia-kanpoaldean;
- Harrera kideak emandako aginduak errespetatu;
- Hondakindegiko araudia errespetatu;
- Gune barneko zirkulazio seinaleak errespetatu, baita segurtasun aginduak ere;
- Hondakindegira etorri aitzin, segurtarazi ekarpenak egiteko aukera izanen duzula bolumen handia baldin bada;
- Botatze bonu bat izenpetu behar duzu eta ale bat eskuratu enpresarentzat. Faktura berantago helaraziko zaio enpresari;

### PROFESIONALENAKO ZERBITZU HORNITZAILE PRIBATUAK:

Lurraldean edo gure lurraldetik hurbil, profesionalen hondakin mota askoren bilketa eta tratamendua proposatzen dituzten zerbitzu hornitzaile pribatu ugari daude.

Hondakin horiek hartzeko modalitateak ordainpekoak dira eta aldakorrek hornitzaile batetik bestera. Aitzinetik horietako bakoitzari argibideak eskatzea garrantzitsua da. Osorik ez den hornitzaile horien zerrenda kontsultagarria da gure webgunean:

**communaute-paysbasque.FR**